

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 15/2020 Foru dekretua, apirilaren 29koa. Onestea Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorrean hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko irizpideak onesten dituen 57/2019 Foru Dekretuaren aldaketa

2019ko abenduaren 27an onetsi zuen Foru Gobernu Kontseiluak Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorrean hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak onesten dituen 57/2019 Foru Dekretua. ALHAOn argitaratuta 2020ko urtarrilaren 22an, zenbait huts antzeman dira jatorriz euskaraz idatzitako zirriborroa gaztelaniara itzultzean, baita gardentasunari buruzko foru araua aipatzean ere. Era berean, dekretuaren 5. puntua aldatzeko beharra egiaztatu da, haren edukia argitzeko.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 109.2 artikuluan dio administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzaketela, ofizioz edo interesdunek eskatuta, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.

Beraz, egoki jotzen da AFAko Administrazio Orokorrean hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak onesten dituen foru dekretua aldatzea, antzemandako hutsak zuzentzeko eta bidezko aldaketak egiteko.

Horregatik, bigarren diputatu nagusiordeak eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea euskarazko testuaren 2. puntua. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

“Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte-hartzearen eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren 18.2 artikulua betetze aldera, itzulgaiak zuzen eta herritarrek ulertzeko moduan idatziko dira, itzultzailearen lanean eragotzi ez dezan.”

Bigarrena. Aldatzea gaztelaniazko testuaren 2. puntua. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

“Para cumplir lo dispuesto en el artículo 18.2 de la Norma Foral 1/2017, de 8 de febrero, de Transparencia, Participación Ciudadana y Buen Gobierno del Sector Público del Territorio Histórico de Álava, los textos a traducir estarán redactados correctamente y de manera comprensible para la ciudadanía, de manera que no se obstaculice el trabajo de traducción.”

Hirugarrena. Aldatzea gaztelaniazko testuaren 2.3 puntua. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

“Previo al envío de algún texto especial originado fuera del funcionamiento diario o habitual de la diputación, el departamento correspondiente deberá ponerse en contacto con el Servicio de Euskera a efectos de organizar dicho trabajo. El Servicio de Euskera se ocupará de gestionar y supervisar la traducción y los costes de la misma los abonará, con carácter general, el departamento solicitante.”

Laugarrena. Aldatzea euskarazko testuaren 5. puntua. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

“Iragarki ofizialak, publizitatea eta kanpainak bi hizkuntza ofizialetan egingo dira. Hala ere, euskaraz egingo dira, oro har, haurrei eta gazteei zuzendutakoak, baita hartzaileen ezaugarriek (hizkuntza gaitasuna, esparrua...) eta gaiak hala eskatzen dutenean ere; betiere, hartzaile edo eragindako pertsona guztien hizkuntza eskubideak errespetatuta.”

Bosgarrena. Aldatzea gaztelaniazko testuaren 5. puntua. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

“Los anuncios oficiales, la publicidad y las campañas se realizarán en euskera y castellano. No obstante, con carácter general, se realizarán en euskera los dirigidos a la infancia y la juventud, y también los que debido a las características de la persona receptora (capacidad lingüística, ámbito...) así lo precisen y, en todo caso, siempre que se respeten los derechos lingüísticos de todas las personas destinatarias o afectadas.”

Seigarrena. Aldatzea gaztelaniazko testuaren 9.2 puntua. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

“Si se agrega un contenido externo en castellano en una publicación de la diputación, el texto de presentación del mismo deberá publicarse en euskera o en ambas lenguas.”

Zazpigarrena. Aldatzea gaztelaniazko testuaren 10. puntua. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

“deberá garantizarse el uso del euskera en las actividades o eventos subvencionados por la diputación al menos en las presentaciones y en los saludos, realizándose primero en euskera, y a continuación en castellano.”

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau onetsi eta hurrengo egunetik aurrera egongo da indarrean, ALHAOn noiz argitaratzen den kontuan hartu gabe.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko apirilaren 29a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Funtzio Publikoko zuzendaria

ADOLFO LANDER VERA